



7

UDAL ADMINISTRAZIOA

ERRETERIAKO UDALA

Hezkuntza

Errenteriako Udalaren Udal Eskola Kontseiluaren Araudiari behin betiko onarpena ematea.

Udalbatzak, 2014ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Errenteriako Udalaren Udal Eskola Kontseiluaren Araudiari hasierako onespena ematea erabaki zuen; era berean, espedientea jendaurrean jartzea eta epe horretan jendeak inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordura arteko behin-behineko akordioa behin betikotzat onartzea.

Ordenantza hori hogeita hamar laneguneko epean jarri zen jendaurrean, 2014ko ekainaren 9an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 107 zenbakian argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdunen aldetik inolako erreklamazio zein iradokizunik, Araudia behin betikoz onartutzat ematen da.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da Araudiaren testua; testua ez da indarrean sartuko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost lanegunetako epea iragan arte.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da euskal autonomia erkidegoko auzitegi nagusiaren administrazioarekiko auzietako salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtsu jartzeko kalterik gabe.

Errenteria, 2014ko azaroaren 5a.—Julen Mendoza Pérez, alkatea. (10114)

ERANSKINA

ERRETERIAKO UDALAREN UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN ARAUDIA

ZIO AZALPENA

Errenteriako Udala jabetzen da hezkuntza udal politikaren lanik garrantzitsuenetako bat dela eta, hezkuntza alorrean legeak ematen dizkion eskumenen garapenean, bermatu egin behar duela hezkuntzaren programazio orokorrean inplikaturiko eragile guztien parte hartzeko eskubidearen eraginkortasuna. Horrela, bada, Euskadiko Eskola Kontseiluaren 13/1998 Legearen III tituluak arautzen duenaren arabera, proposatzen da Errenteriako Udal Eskola Kontseilua sortzea, udalerrian unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazioan aritzen diren alderdi inplikatuaren parte-hartze, kontsulta eta aholkularitza organoa izan dadin.

Horren haritik, Errenteriako Udal Eskola Kontseilua sortzeak aukera emango du herritarren parte-hartze eraginkorragoa izan dadin hezkuntzaren alorrean, eta horrek ahalbideratuko du herritarren hezkuntza beharrei botere publikoen erantzuna egokitzea, ahalik eta gehien, hezkuntza bideratzen den komunitatearen beharrei.

Errenteriako Udal Eskola Kontseiluaren bidez saihestuko dugu sakabanaketa eta alderdi edo estamentu bakoitzaren esku-hartzearen eraginkortasun eza. Era horretan, bakoitzak bere aldetik parte hartu beharrean eta bakoitzari kontsultatu ordez, gainerakoek irizpideak ezagutu gabe, guztiek baliozko bitarteko instituzionala izango dute, gizarte-heziketa prozesuaren bikotean beharrezko oreka dinamikoa eta harreman estua ekarriko dituena.

I TITULUA

KONTSEILUAREN ERAKETA ETA HELBURUAK

1. artikulua. Eraketa.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren urriaren 28ko 13/1998 Legearen III tituluak arautzen duenaren arabera, Errenteriako Udalean eratu da Errenteriako Udal Eskola Kontseilua, hezkuntza komunitatearen alderdi guztien parte-hartze, kontsulta eta aholkularitza organo gisa, udalerrian unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautua programatu, jarraitu eta kontrolatzeko.

2. artikulua. Helburuak.

Errenteriako Udal Eskola Kontseiluaren jarduera ondorengo helburuak lortze aldera bideratuko da:

- a) 2tik 16ra urte bitartekoek hezkuntzaren alorrean inplikaturiko gizarte sektore guztiei Errenteriako herrian bermatzea heziketaren programazio orokorrean parte-hartzeko eskubidea.
- b) Gizarteak edo instituzioek hezkuntza komunitatearentzat bideratzen dituzten prestakuntza, kultura, kirol eta aisialdi eskaintzak koordinatu eta txertatzea.
- c) Ikastetxeak erabat integratu daitezela bultzatzea Errenteriako inguru geografiko, sozioekonomiko eta kulturalean.
- d) Nortasuna bere osoan garatzeko eraturako hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasuna bermatzea.
- e) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzea.
- f) Euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzea hezkuntza alorrean.
- g) Eskola sistema indartzea, gizarte eta norbanakakoen arteko era guztietako desberdintasunak orekatzeko tresna gisa.
- h) Ikasle tokien eskaintza egokia eginez, herritarren hezkuntza beharrak betetzen direla segurtatzea.

II TITULUA

ORGANOEN OSAKETA ETA FUNTZIOAK

3. artikulua. Osaketa.

Udal Eskola Kontseiluak honako organoak izango ditu:

- a) Kontseiluaren Batzarra.
- b) Lehendakaritza.
- c) Lehendakariordetza.
- d) Idazkaritza.
- e) Batzorde iraunkorra.
- f) Lan Batzordeak.

4. artikulua. Kontseiluaren Batzarra.

Eskola Kontseiluaren Batzarra, organo nagusia den heinean, Kontseiluko Lehendakaria izango du buru eta, hitza eta botoa izango duten eskubide osoko ondorengo kideek osatuko dute.

Lehendakaria:

— Errenteria Alkatea izango da. Lehendakaritza Hezkuntza sailaz arduratzen den zinegotziaren esku utzi ahal izango du.

Batzordekideak:

- a) Gurasoak ordezkatzeko dituen pertsona bat, herrian 2 eta 12 urte bitarteko haurren heziketan aritzen den ikastetxe bakoitzeko.
- b) Gurasoak ordezkatzeko dituen pertsona bat, herrian 13 eta 16 urte bitartekoen heziketan aritzen den ikastetxe bakoitzeko.
- c) Zuzendaritza ordezkatzeko duten lau pertsona, herrian 2 eta 12 urte bitartekoen edo/ta 12 eta 16 urte bitartekoen heziketa zikloren batean aritzen den ikastetxe publikoetatik.
- d) Titularra ordezkatzeko duten hiru pertsona, herrian 2 eta 12 urte bitartekoen edo/ta 12 eta 16 urte bitartekoen heziketa zikloren batean aritzen diren ikastetxe pribatu eta hitzarmendunetatik.
- e) Irakasleak ordezkatzeko dituen lau pertsona, herrian 2 eta 12 urte bitartekoen edo/ta 12 eta 16 urte bitartekoen heziketa zikloren batean aritzen den ikastetxe publikoetatik.
- f) Irakasleak ordezkatzeko dituen hiru pertsona, herrian 2 eta 12 urte bitartekoen edo/ta 12 eta 16 urte bitartekoen heziketa zikloren batean aritzen diren ikastetxe pribatu eta hitzarmendunetatik.
- g) Ikasleak ordezkatzeko dituen pertsona bat, herrian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aritzen den ikastetxe bakoitzeko.
- h) Herriko ikastetxe guztietako administrazio eta zerbitzuetako langileak ordezkatzeko dituzten hiru pertsona.

i) Udal talde politiko bakoitza ordezkatzeko duen pertsona bat, baldin eta udalbatza ordezkari lortu badute.

Idazkaria:

— Udalbatzaren Idazkaria edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa izango da. Kontseiluan parte hartuko du, ahotsarekin baina boto eskubiderik gabe, eta saioetako aktak jasoko ditu.

Eskola Kontseiluko kideen hautaketa emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa errespetatuz egingo da, otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa dena.

5. artikulua. Karguak berritzea.

Eskola Kontseiluko kideen karguak lau urtetik behin berrituko dira eta bat etorriko dira udal hauteskundeekin, gehenez sei hilabeteko epean Udalbatza berria sortzen denetik kontatzen hasita.

6. artikulua. Izendapenak.

1. Udal Eskola Kontseiluaren kideak, Udal Eskola Kontseiluaren Batzarrak izendatuko ditu, batzarraren eratzeko bilkuran. Kontseilukide berriak izendatuz gero, ohiko bilkura batean egingo dira izendapenak.

2. Kontseilukide izendatuak izateko proposamenak Hezkuntza azpisailari zuzenduta egongo dira eta Udal Erregistroan aurkeztuko ditu entitate bakoitzak, Udal Eskola Kontseiluaren Batzarrak izendapenak egiteko aurreikusitako bilkura baino hilabete bat lehenago, gutxienez, bai Kontseilua osatzeko, bai bera berritzeko bilkura denean. Era berean, egindako proposamenean kide bakoitzaren ordezkaria zehaztuko da.

7. artikulua. Kargua galtzea.

Udal Eskola Kontseiluko kide direnek kontseilukide kargua galduko dute, honakoren bat gertatuz gero:

- a) Agintaldia amaitzea.
- b) Izendapena erabaki zuten baldintzak gertatzen ez direnean.
- c) Karguari espresuki uko egitea.
- d) Kargu publikoetan aritzeko ezgaitzen duen hutsegiteren bat eginez gero.

8. artikulua. Betegabeko karguak.

Karguren bat bete gabe geratzen denean, hori ordezkari izateko izendaturiko pertsonarekin beteko da, eta arestian aipaturiko baldintzak betetzen baditu. Kargu horretan egongo da ordezkari duenaren agintaldia bukatzen den epera arte.

9. artikulua. Funtzioak.

Udal Eskola Kontseiluaren Batzarra derrigorrez kontsultatua izango da, eta aholkatu, informatu eta proposamenak egingo ditu honako gaien inguruan:

a) Udal mailan eskola-tokiak sortzeko, kentzeko eta aldatzeko, eta bai ikastegiak eraberritzeko ere.

- b) Garbikuntza, bere onean eusteko, zaintze, antolapideak eraberritze-alorrean, etabarrekikoan, ikastetxeen ihardunari doazkien udal ekintzei buruzkorako.
- c) Hezkuntzaren alorreko udal jarduerak eta xedapenek honako hauetan eragina dutenean: haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan, ekintza osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan, ingurumeneko hezkuntzan, osasun-hezkuntzan, laguntza psikopedagogiakoan, eskola kirolean, eskola-absentismoan eta abarretan, betiere hezkuntzari loturiko jarduerak, planak, proiektuak eta erabakiak direnean. Halakoak herrian bertan garatzeko proposaturiko dira.
- d) Gizarteak hezkuntza-elkarteari egin diezazkion gaikuntzarako eskaintzak elkarri egokitu eta sartzeari buruzkoan.
- e) Herriko Hezkuntza eskaintzaren lurralde banaketarako beharrak eta irizpideak aztertzea eta eskola mapa adostea, ikasleak eskolaratu ahal izateko banakuntzarako irizpideak zehazteari buruzkorako.
- f) Osagarrizko hezkuntzaren alorreko ekintza-egitamuari buruzkorako.
- g) Neska eta mutilen arteko elkarbizitza positiboa sustatzeko jarduerak, ondorengoak azpimarratuta: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eskola jazarpenaren aurkako ekintzak, genero indarkeriaren aurkako ekintzak eta diskriminazio sozio-ekonomiko mota guztien aurkakoak, eskola eremuan eta eskolak eragina duen alorrean.
- h) Euskararen normalizazioari eta erabilerari loturiko jarduerak eskola eta bere eraginpeko alorrean.
- i) Gurasoak hezkuntzaren prozesuan txertatzea honako ekimenen bidez: guraso eskolak, prestakuntza ikastaroak edo antzeko ekimenak.
- j) Eskola komunitatearentzako matrikulazio eta aholkularitza kanpainak eskolaratzeari, funtzionamenduari eta hezkuntza-orientabideari eragiten dioten gai guztietan.
- k) Proposaturiko ekintzak eta jarduerak betetzeko jarraipenean, hala nola Udalbatzak hezkuntzari loturiko onarturiko ekintzetan.
- l) Ihardutze-eremuz udalerako izan edo Udala partaide izango deneko hezkuntzako zaingobatzorde, bazkun eta erakundeak eratzeko.
- m) Hezkuntzako edo/eta udal agintariek ezartzen duten beste edozein.

10. artikulua. Lehendakaritza.

Udal Eskola Kontseiluaren Lehendakaria Udaleko Alkatea izango da. Berak lehendakaritza Hezkuntza azpisailaz arduratzen den zinegotziaren esku utzi ahal izango du.

11. artikulua. Funtzioak.

Lehendakariaren funtzioak honakoak izango dira:

- a) Kontseiluaren zuzendaritza.
- b) Bilera bakoitzeko gai zerrenda ezarriko du.
- c) Bilerak deitu eta zuzenduko ditu.
- d) Kontseiluak harturiko erabakiak burutzen eta betetzen direla zainduko du.

e) Kontseiluaren ohiko funtzionamendua bermatuko du, eta, gainera, eskumena izango du bozketak erabakitzeko berdinketak izaten direnean bere kalitatearen botoaren bidez.

12. artikulua. Lehendakariordetza.

Udal Eskola Kontseiluaren Batzarrean bozketaz eta gehiengo osoz aukeratuko da Lehendakariordea, bere kideen artean, aurkeztutako hautaigaien artean. Horrelakorik lehenengo bozketan lortu ezean, hautaketa gehiengo soilez burutuko da bigarren bozketan.

13. artikulua. Funtzioak.

Lehendakariordearen funtzioa Lehendakaria ordeztea izango da kanpoan izateagatik, kargua bete gabe dagoelako edo gaixotasunagatik. Horrez gain, Lehendakariak eskuordetzen dituen funtzio guztiak bere gain hartu ahal izango ditu, harturiko erabakiak burutzen eta betetzen direla zaintzea eta Udalarekin izan beharreko harremana izan ezik.

14. artikulua. Idazkaritza.

Udal Eskola Kontseiluaren Idazkaritza Udalbatzaren Idazkaritza Orokorra duen pertsonaren esku izango da, edota Hezkuntza Azpisaileko Pertsonalaren artean eskuordetzen duenaren esku.

15. artikulua. Funtzioak.

Idazkariak bete beharreko funtzioak ondorengoak izango dira:

- a) Udal Eskola Kontseiluaren Batzarraren bileretara joatea hitzarekin baina botorik gabe.
- b) Bileretako aktak idaztea eta Kontseiluaren dokumentazioa zaintzea.
- c) Kontseiluaren Batzarraren erabakiak eta aktak egiaztatzea.
- d) Dokumentazioa eta postazko harremana tramitatu eta artxibatzea.
- e) Bileretako gai zerrenda prestatu eta deialdiak tramitatzea.
- f) Kontseilu-kideentzako dokumentazioa nahiko garaiz aurretik prestatu eta bidali.
- g) Kontseiluak buruturiko jardueren, egindako azterketen eta onarturiko proposamenen urteko memoria prestatzea, hala nola Udalean eta Administrazio Hezkuntzan tramitatzea.
- h) Lehendakaritzak aginduta Idazkaritzari egokitzen zaizkion funtzio orokorretako beste edozein jarduera.
- i) Ohiko eta ezohiko bileretako gai zerrenda prestatu, Lehendakaritzak onar dezan.
- j) Gaiak, txostenak, proposamenak eta irizpideak prestatuko ditu, Kontseiluan eztabaidatu ahal izan ditzaten.
- k) Ikasturtearen bukaeran, jardueren urteko txostena Kontseiluaren Batzarrari aurkeztuko dio.
- l) Herrian hezkuntzaren egoerari buruzko urteko txostena prestatuko du.

16. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

Batzorde Iraunkorra, Udal Eskola Kontseiluaren Lehendakariak gain, gutxienez, honako kide hauek osatuko dute:

Gurasoen ordezkari bat, irakasleen ordezkari bat, ikastetxeetako zuzendaritza edo titulartasunaren ordezkari bat eta ikasleen ordezkari bat.

Horiek guztiak Eskola Kontseiluaren Batzarrak hautatuko ditu bozketa bitartez eta gehingo soilez.

Kontseiluaren Idazkaria ere Batzorde Iraukorreko kide izango da.

Batzorde Iraunkorrean gai zerrendan Lan Batzordeek azterturiko gaiak direnean, bertan izan beharko dute batzorde horien buru direnak.

17. artikulua. Funtzioak.

Batzorde Iraunkorrari egokitzen zazkion funtzioak ondorengoak dira:

- a) Batzarraren ohiko eta ezohiko bileretako gai zerrenda prestatzea, era horretan Lehendakariak ezarri dezan.
- b) Batzarrean eztabaidatu beharreko gaiak, txostenak, proposamenak eta irizpenak prestatzea.
- c) Kontseiluaren Batzarrak eskuordetzen dituen gaiak eta erabakiak kudeatuko ditu, hala nola Kontseiluaren bileren artean erabakiak hartzea; betiere, kudeaketari dagozkion gaietan eta Kontseiluaren Osoko Batzarraren ezohiko bilerarik eskatzen ez duten gaietan.
- d) Lan Batzordeen eginkizunak koordinatzea.
- e) Ikasturte bakoitzaren bukaeran Kontseiluaren urteko jardueren memoria burutuko du, batzordeen txostenen arabera, eta Kontseiluaren Batzarrean aurkeztuko da.
- f) Herrian hezkuntza egoeraren inguruko txostena emango du.

18. artikulua. Lan Batzordeak.

1. Lan Batzordeak gutxienez hiru Kontseilu-kidek osatuko dituzte, aztertu edo analizatu beharreko gaien interesaturik daudenak, eta Kontseilu-kideen artean hautatuko dira.

2. Lan Batzordeei honakoa egokitzen zaie:

- a) Batzorde Iraunkorrarentzako proposamenak eta txostenak egitea, Lan Batzordearen Zuzendaritzan ari denak bozeramaile izango delarik.

Txostenak egiteko gaien adituak diren pertsona edo elkarteei aholkularitza eta lankidetzak eskatu ahal izango zaie.

3. Eskola Kontseiluaren Batzarrak ondorengo antzeko Lan Batzordeak sortzea proposatuko du. Batzorde horiek osatzeko akordioan zehaztutako aldizkakotasunaren arabera egingo dituzte bilerak.

- a) Planifikazioa.
- b) Euskalduntzea.
- c) Kultura eta eskola kirola.
- d) Osasungintza.
- e) Heziketa Premia Bereziak.
- f) Berdintasuna.

g) Heziketa programa eta esperientziak.

h) Bestelakoak.

4. Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarraren bileretan, lan batzordeetan lantzen diren gai guztien berri emango da.

III TITULUA

ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

19. artikulua. Egitura.

Udal Eskola Kontseilua Batzar eta Batzorde Iraunkor gisa egituratuko da. Kontseiluaren Batzarrak Lan Batzordeak sortu ahal izango ditu, araudi honen 18. artikulua ezarritakoaren arabera.

20. artikulua. Kontseiluaren Batzarra.

1. Batzarra da Udal Eskola Kontseiluaren órgano erabakitzailea.

2. Kontseiluaren Batzarra balioz eratzeko kideen erdia baino bat gehiago egon beharko dira bertan. Quórum hori saio osoan zehar mantendu beharko da. Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da Lehendakariaren eta Idazkariaren bertaratzea edo euren ordezkoen.

3. Kontseiluaren Batzarraren bilerak behar bezala osatu direnean lehen deialdian egingo dira, eta bigarren deialdian, lehenengo deialditik ordu erdi beranduago, baldin eta gutxienez kideen herena bertaratu bada.

21. artikulua. Aldizkakotasuna.

1. Kontseiluaren Batzarrak ikasturtean zehar ohiko hiru bilera egingo ditu gutxienez, hasieran, erdialdean eta amaieran. Lehendakariak deialdiak egingo ditu, gutxienez zazpi egun lehenagotik.

2. Lehendakariaren ekimenaren bidez ezohiko bilera egingo da, edo kontseilu-kideen laurdenak eskaturik, idatziz eta ezohiko bilera deitzeko dauden arrazoiak adieraziz; eta behar bezala osaturiko Batzarrak hala erabakitzen duenean. Ezohiko bileretan ezin izango dira gaitzerrendan ez dauden gaiak eztabaidatu.

3. Kontseilu-kideek eskaturiko ezohiko bilerak Lehendakariak deituko ditu, eta ez dira hamabost egunetik gora izango bilera eskaera eta bileraren artean.

22. artikulua. Ekimenen memoria.

1. Ikasturte bakoitzaren amaieran, Lan Batzorde bakoitzak urteko ekintzen memoria bat burutuko du, eta Eskola Kontseiluaren Batzarrari aurkeztuko zaizkio.

2. Urtero, Eskola Kontseiluaren esku hartzei buruzko txosten bat egingo da. Txosten horretan aipamen berezia egingo zaio udalerrian hezkuntzak duen egoerari, baita udal jabetzakoak diren ikastetxeen mantenimendu eta kontserbazio egoerari ere. Txosten hori, behin Udal Eskola Kontseiluaren Batzarrak onartu ondoren, Udalarari zuzenduko zaio eta, halaber, Lurralde Historikoko Eskola Kontseiluari edo horren baliokidea den organoari.

23. artikulua. Proposamenak eta akordioak.

1. Eskola Kontseiluak izaera parte-hartzailea duenez, beharrezko elkarrizketak eta eztabaidak sustatuko dira, adosturiko erabakiak hartzea bideratzeko. Dena den, adostasunik izan ezean, proposamenak gehiago soilz hartuko dira.

2. Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarraren proposamen, irizpen eta txosten guztiak helarazi beharko zaizkio Errenteriako Udalaren Hezkuntza Batzordeari.

24. artikulua. Errenteriako Udalarekin harremana.

1. Errenteriako Udalak, Errenteriako Udal Eskola Kontseiluaren eskura jarriko ditu beharrezkoak diren finantza baliabideak eta baliabide materialak. Baita giza baliabide nahikoak ere, bere funtzioak bete ahal ditzan.

2. Udal zerbitzuak elkarlanean arituko dira Udal Eskola Kontseiluarekin eta, ahal den neurrian, Udal Eskola Kontseiluak egindako informazio eskaerei erantzungo diete.

3. Hezkuntza Azpisailaren gain egongo dira Udal Eskola Kontseiluaren funtzionamenduaren aldeko koordinazio eta sustapen eginkizunak.

Xedapen Iragankorra.

Errenteriako Hezkuntza Azpisailari dagokio Errenteriako Udal Eskola Kontseilua osatzea eta abian jartzea.

Azken Xedapena.

Arautegi hau indarrean sartuko da behin Errenteriako Udalaren Udalbatzak onartutakoan eta Tokiko Araubidearen alorrean indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak betetakoan. Betiere, testua bere osotasunean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egunetara.